

# ENE MAITE KUTTUNA

Egilea: Eriet Zubizarreta Goenaga

Doinua: Badira hiru aste (Mikel Urdangarin)

1

Ni oso umea nintzenetik  
ondo zaitut ezagutzen  
esango nuke zure ahotsak  
ez ninduela aspertzen  
gure etxeko tristura denak  
zuk zenituen alaitzen  
eta gu denok mahai ingurura  
zorionean elkartzen

3

Zure larruazal goxo hori  
nik sarritan det laztantzen  
zuk beti hitz alaiekin nauzu  
armoniaz erantzuten  
ditudan hutsune hoiek beti  
zurekin ditut betetzen  
bikote ona egiten degu  
ez det zalantzarik jartzen

2

Nire osaba kuttunak pasa  
zidan bere lekukoa  
eta zu maitatzen irakatsi  
zintulako gertukoa  
zurekin pasatako denbora  
gure maitasun gakoa  
bion arteko kimika hau det  
nik behar-beharrezkoa

4

Inoiz patuak nahiko balu  
biok elkar banantzea  
ez nuke nahi nik inolaz ere  
gure lotura galtzea  
nire lagunik onena izana  
nahi nizuke eskertzea  
eskerrik asko bihotz-bihotzez  
ene pandero maitea

ERIET